

OSTRAILĪKA TA OSTADAĀA GIPUZKOAN

(La vía láctea y el arco iris)

Zeri nagokion garbi, baiño âlik laburâna esateâren, itz bi aurâtik. Gipuzkoan bilatu ditudan ostrailika ta ostadaâren izen ezagun ta agirienak aztertu, beren sustraya ta zentzuna, egiñâlean, adierazi, berekin zerikusirik duten uste eta siniskeri batzuek aitatu eta beste erietakoenekin berdinkaratu (erkatu), auxe da nere asmoa. Eztu, beraz, nere lantxo onek osokoa, ezta baânkoya ere izan nai. Euskalefiaren inguruan dauden erietako befi batzuek bi liburu oetan idoro ditut : *Rotzler* : «Ostrailikaren izenak Prantzian» ta *Merian* : «Ostadaâren izenak Prantzian». Espaiñan ezta, nik dakidala, oen antzeko lanik egin, ardura andikoa da baiño. Rohlfsek, ordea, Tübingen-go irakasle azkařak, orain iru urte egindako itzaldi batean, gai piska bat eman du.

Ostrailika

Aintziña leku ta eri donâtara (santuetara) bidaldiak egiteko zaletasun ta gar andia izaten zutenak, euskera zârean santulariak deitzen ziran. Iru ziran, artean, Europa guzian entzute andia zuten toki doneak : Yerusalem, Erâma ta —aritzeko gauza!—Santiago de Compostela. Amargařen gizâlditik asi ta amasei-gařenararteraino azkeneko au zan besteak baiño aitatu-

ago ta beraz ikustatuago ere. Sei gizâldi orietan, Espaiñatik ez ezik, baita Prantzia, Inglatera, Italia ta batez ere Alemaniatik joera nabarmena, laña zan Galiziako bazter uruti artara. Done Yago eortzita datzan lekuan otoiñtz egin nai izaten zuten santulariak, obenen pisuaz astunduta zeudelarik, beretzat betiko bizitza irabazteko ta lagun urkoari ikasbide onuratsua begien aurrean jartzeaŕen. Zeregin doatsu ori ekiteko naigabe ta istiñurik asko gaiñean artzen alegindu bear zuten, uruti baitzegoen Santiago, orduan ezaguna zan lurbiraren muturñeana, ta arako bidea eñ anitzen zear baitzijoan. Ez otz-beroak, ez gose-egariak, ezta bidaldiko lasturak etzituen izutzen. Gaiñera goizean goiz jaiki, egun osoan ibiñaldi neketsu geldia egin, ta aratsean sañ eguzki sartuta askozaz gero, ilunpetan ibiñiaz, ostatura eltzen ziran. Olakotan, nekaturik, begirada apala zerualdera zuzentzen zutenean, goyan dizdiz ari diran izar argitsuak, Jainkoaren irazapen betikoña, ta osgarbi-garbi zanean, baita zuritasun luxeka bat, lausoaren kisa, zeruan batetik bestera zijoala igartzen zuten. Auxe ikusteak biotzean beriz sugaña piztu, kolkoa kemenez ta burua gogamen doatsuz bete oi zien ain lañ ta lastuta bizi ziran bidezti gizaixo oñei. Izartegian nabaritzen zuten bide zuri ori berak zebiltzan luñeko kañikaren irudi zerutaña zala zerizkioten bada; eta ilargi-gabeko neguko gau ilunetan bera biziñ argi ta nabarmen sortaldetik sartaldera okertuta zekustenean, Jainkoa berezaz oroitzen ta gaiñera Santiagorako bidea erakutsi nai ziela uste zuten. Iru ziran Prantziatik zetozen ta Santiagora zijoazen bideak. Bata itsasoaren ondoan zijoan, beste biak, Auñemendiak garate (portu) banatan igarota, Estella aldean elkarturik, bateginda gero ere Euskaluni ez gutxi ikutzen zituzten. Gaurko egunean oraindik

Euskaleriak arako santulari orien aztarna asko gordezen ditu, bideak, bide baztereko ostatuak, Zumayan ta Ataunen bezela, ta abarí. Izkuntzak ere badaki esaten aldi ayetako beri : zeruko bide ori *Santiago-bidea*, *Santiago-elizarako bidea*, *kamiñoa* edo olañsu deitzen du eriak, Legazpi ta Oñati inguruan bederik, izen ofen esan-naya ta zentzuna zearo aditzen ematen iñork ezpadaki ere. Oen antzekoak non nai idoro ditezke santulariak ibili ziran alderdietan :

Portugalen : *estrada de Sant Jago*.

Españan : *camino de Santiago*.

Alemanian : *Jakob - Strasse*.

Prantzian : *chemin d' Espagne*.

Erialde guzi oetatik santulariak eruz etortzen ziran Euskaleriaren zear ta alkarekin zeregiña ta artu-
emana izan zutena —bestela ezpageneki ere— euskerak berak adieraziko liguke, argi ta garbi. Badatorkio oni, amairugarren gizaldiko ipuin bat. Ikus, zer dion :

«Karlomagno errege andiak bein batean, lo zetzala, amets egin omen zuen, Ipañaldeko Itsasotik ubide zuria irten zala, landaren zear, mendi ta fontoretaz gaindi, zuzen-zuzen aurera zabalduaz, Santiagora eldu arte: geroztik santulariak nabarmentzen zutena, bera. Karlosek esnatutakoan bere lagun, mendeko ta andizkiekin bide ori jaraitu omen zitzaion, Galiziarra ostera bat egin omen zuen, ta donearen obian otoitz egindakoa bere erira atzera etori omen zan». Garai artako esate askoren antzera onek ere egia eta asmua (asmatua) nāsika dakar. Jaurgari (emperadore) bikaiñ orék Españara joanaldi bat egiñaz Iruña ta Zaragozara eldu zana ta moruei jazar gogoangari batean eraso ziena egi-egia bada ere, etzan bera santularren

kisa joan, ezta Galiziara alegatu ere. Beste ipuiñ batek dionez Ama Birjiña temploan geratu zan, Jesu-kristoren biñ ari zala, ostrailika gaiñetik itzuli zan Yerusalemera. Adin zâreko (antigualeko) poetak berdintsu jainkoen bidea irizten zioten. Ikus dañraizen berso oek, Ovidio olerkari ezpaiñ biguñak egin zituenak :

«Est via sublimis, caelo manifesta sereno.
Lactea nomen habet, candore notabilis ipso.
Hac iter est superis ad magna tecta Tonantis
Regalemque domum. Dextrâ laevâque deorum
Atria nobilium valvis celebrantur apertis...»

Beste siniste bitxi bat badago gaurkoen artean : ostrailika ildakoen animak zerura igotzeko bidea dala uste du lagunabañak nunbait.

Guipuzkoan bildu ditudan bere izenak mota askotako izatea, ezta iñola ere aritzeko gauza. Lën esan dedanez, neguko gau garbi-garbietan izan ezik ezta bera nabaritzen. Oregatik askok eta askok eztute bera ikusi ere egin edo ikusi dutenik jakin ez. Aren beñiak izateko galdetzen nituen baseñitar eta artzaiak sañitan zerzaz ari nintzan ere etzidaten igafi, ofen da gutxi ezaguna edo aintzat artua. Olakoxea da Prantzian gertatzen dana. An itz-izenak ikasteko asmoz lekuri leku galdezka ibili ziran jaun jakintsuak 184 tokitan ezomendute argitasunik izan, gizonik geyenak ostrailakaz ardurarik izaten eztutelako. Au idazten ari naizela darabildan izena, *ostrailika*, «via lactea» adierazteko esan egiten da, geyenbat «arco iris» ala izendatzen bada ere. Prantzian eta Alemanian ere olako nâsketâ sortu da : Naiz ostrailika (via lactea) ta ostadaña (arco iris) gauza bera dirala uste dutelako, naiz aren izenaz oroitu ez, ta onena —bear ez bezela,

noski— ari ere ematen diotelako. Gipuzkoan, egungo egunean, «ostrailika» maizenik «arco iris» izan aŕen, berez ta jatoŕiz «via lactea-ri» dagokiola derizkiot nik. Legazpi ta Seguran *ostreilaja* esan oi da; -j- euskerazkoa danik eztirudi. Batzuek, beriz, *estreiłaja estreiłajea* ebakitzen dute. Oetan erderaren kutsua agiri da: euskerazko *ostreilaka* ta erderazko *estrella*, *estrellaje* elkaturik sortu da, noski, Legazpiko izenkera arimeneko ori. Ostrailaka itzak zer esan nai duen, bere eŕoak eta jatoŕia zein diran, uŕengo atalean azaltzen sayatuko gera.

Ostadaŕa

Ostrailakaren aldean ostadaŕa agertzapen ikusgaŕi ta nabarmena dala ezin ukatu diteke. Euri ugariarekin batera ostartetik eguzki-eŕaiñuak ateratzen diranean, bereala mako biribil, argitsu, margo askotakoaren erara agertzen da zeruan, ikuskizun liluragaŕia.

Bere izenak Bizkayeraz mintzatzen dan Gipuzkoaren txokoan *ostarku*, *ustarku* da, beste alderdietan *ostrailika*, *ostilika*, *ostalika*, sortaldean, napartaŕen izkera eballi oi dan eŕietan *ustadaŕ*, *ostadar*, *ostabar*. Izen oetatik lēnengo ta azkeneko saila berdintsuak dira, beren zentzuari begiratzen badiogu: arkuaren naiz zezenaŕen adaraŕen gisa makurtua baita. Gaiñera *ostian* (*ortzian*), au da euskera zārean zeruan azaltzen da. Baiñan *ostrailika* izenak zer adierazi nai ote du? Eztu gaurko izkuntzak au ulertu āl izateko argitasunik ematen. Beronen lēnengo atala ta «osti» bat dirala dirudi, bigaraŕena, baiña, aztertzen zaıla dala aitortu bear. Alan ta guziz ere, ostarku, ostadar ta ostrailika alde dauden eŕietan, antz andia duten mintzoetan gauza bat bakaŕa ta bera izendatzeko

erabiltzen dirala gogotan eukitzen baldin badegu, *arkuak* ta *adařak* eta (*a*) *iřikak*, edo dalako ofek gauza berdintsua edo antzekoa beiřnikbeiř, aditzen eman nai dutela uste izatea, zilegi ezta bada? Era ontara beste izkuntza anitzetan ere ostadafari deritzaio :

latiņez : arcus,
griegoz : τόξον (au da *tóxon*),
erderaz : arco iris, arco del cielo,
prantzesez : arc-en-ciel,
italianoz : arco celeste,
alemanez : Regen-bogen.

Prantses garbiz *arc-en-ciel* esaten bada ere, ango izkelgiak milia erataraz aldatzen dute itz ori : *arkado*, *arcas*, *arcas d'ou c'eu*, *arc-ange*, *arket*, *arquet del cel*, *couronne (de St-Bernard)*, *litô*, *pont*, ta abar. Bereun baiņo geyago izango dira, diranak ondo bilatu ezkerero. Orain ordea, *arc-en-ciel*-ek eřiak antziņatik erabiltzen zituen izen oriei gero baiņo gero leku geyago kentzen ari da. Onen antzeko gertaera bat Gipuzkoan bertan ikus diteke. Gaur askok «arco iris» *eřomako zubia* deitzen dute. Izen au beřia dala ta leku batzuetan l'engo izen egokiak guziz kentzeraiņo azkeneko urt'etan bakařik zabaldu dala badirudi, orain ere geroz geyago—zeiņek egoak emanda eztakit—banatzen dijoan antzera. Zubiaren kisa dago, alegia, Prantzian ta beste iņon ere *pont*, *ponte*, *Brücke* esaten zayo.

Baiņa Eřoma uria, zer dala-ta emen sartzen da?? Eřoman ba-otezan zubi nabarmenen bat, zerukoarekin berdinkaratzeko? Eřomar z'ar'ak eraiki zutena ta gaurarte dirauen Ponte Sant' Angelo ote da izen oni doakiona? Ala izatekotan Eřomara joaten ziran santulariak, *eřomeroak* izen oiezbezelako ori asmatu

zufenak izango ziran. Uste au egiztatzeko naiz egiantzeko egiteko naikoa agiri ta argibiderik oraindikan eztagoela derizkiot eta ala aitortu det. Dana dala, gero aitatuko ditugun batzuen antzera izen onek ere erlijioarekin zerikusirik—urbil naiz urfufirik—badaukala, ziur nago. Igeldo ta Oikinan ostadañari *Jainkoaren geñikoa*, beste nonbait erdi erderaz *Jainkoaren paxa* irizten diote. Merianek irakasten digunez olako itz jostazaleak atzeñan ere or-emenka idoro ditzakegu, gizaki irudimen bizidunen, ameslarien asmakizuna. Amen adibide batzuek. Prantzian *ceinture du bon Dieu* izen zayo, edo *ceinture de St-Martin*, Txipren ζωνάρην της άγίας Έλένης, au da, Done Elenaren geñikoa. Bizantinoak griego zâñez ζώνη περι τον οδρανόν, au da «zeruaren inguruko geñikoa» izentzat jañ zioten. Irukoitza da ostadañaren izaera nabarmena, ajola andia bilatzen diogulako; biribila, argitsua, margoz ditzikoña izatea. Biribila dalakotz «adañ» eta «arku» esaten zayo, argitsu izateak *ustargi* izena ekañ dio (Albisturen gutxienez), baiño—arimeneko gauza!—bere margo liluragañengatik etzayo Europan iñon izenik jañ. Orañ arte aitatu ditugun izenezaz gaiñera bádira iñor oartu gabe gaurarte izkutuan geratu diran oetxek :

intzirka (Itziar), intxearka (Oikina)
intzearka, inzarka, (Aizarnazabal)
inzerka (Añona).

Oek bi eño edo sustrai «intze» ta «arka» dituztela ezagun dute lëndanik. Zer esan nai dute, ordea, zeren dira adigañi? Euskaleñiko mugaz aruntza begiratu gabe alako galdera gaitzari, erantzun dakiokenik ezte uste; atzeñi ta erbesteko beñi jakitea beti laguntza izan oi da. Ta ara begiratutakoan egia uts utsa ikasi ezin badegu ere, bereganako bidean zertxobait auñeratzeak

gogoa beteko digu. «Arka» au erderazko «arca» ez ote da? Testamentu zârak edasten (kontatzen) duenez, ugolde andiak alde egin zuenean, Jainkoak Noeren arkaren gaiñean, zeruan, ostadaña jari omen zuen, bera ta gizonen artean auferantzean betiko pakea izango zalako ezaungari. Ta aiezkeru jainkozaleak diranak, ostadañaren ikuskeran, Jainkoaz edo Noez, naiz beronen arkaz oroitzen dira. Onengatik prantses batzuek «arc d'alliance», au da, «alkartasuneko arku», esaten dute, Jainkoak eta Noek alkartasuna, egiunea egin zutelako. Italian, Arbedon, beriz, ostadaña bera «arca de Noé» izendatzen da, Espaiñako txoko batean «arca» soil-soilik. Au aintzakotzat artu ezkeru Iziar aldeko (*intze*) *arkak* ere Noerenarekin zerikusirik badauela bayeztu ditekè. Lénengo atalaren, *intze*-ren esannaya bageneki, indartu genezake gure iritzi au, ilun samara da, baiño. Beste mota ontako indargari ta argibide bat Berastegin arkitu degu : an ostadaña azaltzen danean, «Jaungoikoaren mandataria» dalako, begirune andiz begiratzen zayo. Jainkoaren eginketatzat edo Yupiter naiz Yunoren beraren mezuak bete bear zituen mandararitzat antziñako jentilak ere artzen zuten. Ovidioren «Metamorfosisetan» berso oek irakur ditzakegu :

«Nuntia Junonis varios induta colores
Concipit Iris aquas alimenta que nubibus adfert...»

Yuno jainkosaren mandataria omen da, Iris deritzayo ta odayei ura jasotzea bere arloa dauka. Non nai ta noiz nai ostadaña—luřetik gora zerualdera igo eta atzera luřera jasten dalako alegia—Jaungoiko ta gizonen, zeru ta luřaren bitartekoa iruditu izan zayo lagunabafari. Ildakoen animak arezaz zerura igotzen dira, Jainko aizunak, bestalde, gizonei ikustaldia egi-

teko daudenean jatsi. Gaiñera adimen laueko gizonak, artzai-baseritarak urtandoak ekaitz ta jasatan beti bêraka ta bêraka ikusten dituzte. Baiña nondik ote datoz ainbeste urtandô ta euri, andik edo emendik atzera igotzen ezpadira? Ta nork igoerazi, ostadaña ezpada? Izadi osoan dakusgun uraren gorabêra etengabea eriak ontara ezez ta egoki ulerterazten du. Ovidio baitan arkitzen degun siniste ori berdin Gipuzkoan biãa diteke : ostadaña da, odayei, euria ari danean, ura gora erakartzen diena, bera da, igartu ez ditezen, beti gaya, bustitasuna ematen diena. Plinio eromatar jakintsu aspertu-eziñak ere alaxe derizkio : ostadaña ibayetatik edaten ari dan zezen izugariãa da.

Plauto, eromataren lêngengo komedia-idazleak auxe dio : «bibit arcus, pluet hodie». Orétxegatik Italian gaur ere Venafron berari «arkevêvere» esaten diote («vévere» edatea da). Gipuzkoan (Ataunen eta beste tokietan) ostadaña beti érekatik érekara, naiz putzutik putzura dagoela sinisten dute, anakak beti bustian dauzka, edan âl izateko. Gutxitan ordea, siniste auxe bilatu det : bustitik bustira egon ezkeru eguraldi txâra izango da, ekaéretik ekaéra (au da «legoéretik legoéra») egon ezkeru, beti edera. Ontan giroaren iragarlea bezela agertzen zaigu, Albanian urtabe ugariaren edo urriaren gartzigatzaiilea danez. Euskaleñian, eguratsa (aidea) garbi-soiãa ta eguzkia guziz argitsua dagonezkeru, ostadar bikoitza ikustea ezta gauza bakana, baita irukoitza ere beñ edo bi aldiz garbi-garbi ikusita gogoan det. Ipuiñ zâr askotan Jainkoa ta deabrua eztabaidan ibiltzen dira: Jainkoak zer-edo-zer asmatu, egin, ta deabrua bereala ori berori egiten sayatzen omen da, ta jakiña, gauza onik ezin egin, ta zerbait pafegari-rik sortzen da. Orétxegatik toki batzuetan bigaen ostadaña, lêngenôa baiño argalagoa, zurbilagoa ta ani-

tzetan betetzaka (ez osoa) baita, deabruaren lanketa-
tzat artzen da, Alsazian eta Badenen, bederik. Erabat
bi azaltzen diranean, «deabruaren ezkontza» esan oi
da, au idazten ari naizen uriaren inguruan, ta Vene-
zian, edo «deabruak bere alabak ezkontzen ditu»
Walonian (Belgikan). Ondañibian orduan «azerien
ezkontza» esaten dakite. Ala ere deabruak badu Eus-
kaleñiaren ere ostadañarekin zerikusirik. Ormaiztegin
ipuiñ auxe aditu nuen : «Beññ batean, euria egiten ari
zala «ostreñlaka» agertu zan zeruan ta oñen auñean
deabruak Jaungoikoari apustu bat egin omen zion...»
Usterik nabarmenena, bitxiena ba, ezpairik gabe,
Araotzen ikasi nuena : ostadañaren azpitik igarotzen
dan aña emea egiten dala, mutñla neska.

Azkuek Eñonkarin siniste txoro ori bera bildu du :
ostadañaren azpitik ibñli ezkeru neska mutñla egiten da,
mutñla neska. Berdinkaratu oekin Brunswigia inguruko
ipuiñ bat (Alemanian) : «Garai batean Juanita zeri-
tzayon neskatñla bat bizi zan, oso biuñña ta bizi...
Egun batez ekaitza sortu zan ta aize indartsu batek
Juanita jaso ta ostadañaren azpitik eraman zuen. Or-
duantxe Juanita mutil egin zan, eta auñerantzean Jua-
nito zeritzayon.» Guziz bakana eta oiezbezelako iza-
tez gaiññera ain leku banatan arki ditekean siniste
txoro au, nola azaldu, bere esan-naya nola aditzen
eman? Baalditeke? Gure iritziz auxe da siniskeri oñen
sustraya. Mutñla neska edo neska mutil biurtzea gerta
ezin ditekean gauza dan bezela, ostadarpetik igaro-
tzea ere eziññekoa da. Alderatzen zayonarengandik
alde egiten du bada arek, eta azkenean banatuz ta
utseratuz bisuts ta laiño besterik ezta geratzen. Aye-
natu egin da, sorgin baten edo deabruaren asmaketa
gezurti, itxura edeñeko laino utsa, ikutu nai danean,
suntsitzen dan antzera.

Amaitu baiño lèn beste galdera bat. Ikusi degunez, uste, iritzi, esamesa ta siniste antzekoak aldi zâr ta berietan Europako erialde berezietan arkitzen ditugu, ta baliteke eztabaidaren bat erakortzea : non jayoak izan dira olako usteak, zein bere jatorî egiazkoa, nola zabalduak izan dira batetik bestera? Eztabaida au zearo ta txito erabakitzeke neke andia artu bear da. gaiñera bi itzetan ezin diteke epaya eman. Gaur arlo astun oîri lotu gabe burutasun bat bakaña eman dezagun : izatez berdiñak diran soro-landak, naiz bata bestetik oso uruti egonañen, azi mota bera artu ezkeró arnari (frutu) berbera edo antzekoa ekañiko dute. Ta gizonaren burmuiña landa jator gozo baten irudikoa da, ainbeste gogamen, oldozpen ta burualdi egalari, batzuek aul eta makalak, indartsu ta iraunkorak besteak, non nai ta noiz nai eruz argitara ematen ditu-ta.

Hannover, azaroaren emeretzigarëna, 1930.

Gerhard Bähr.
